



ENPRESEN KONTSULTA FOROA

2024ko urriaren 30a

GAI-ZERRENDA:

1. Ongi etorria ematea ordezkariari eta bileraren helburua aurkeztea.
2. 2024ko irail eta urriko mahai sektorialetan egindako eskaeren gaur egungo egoera.
3. Proposamen, ideia edo iradokizun berriak.
4. Hurrengo urratsak: Kontrasteko mahai politikoa.

BERTARATUAK: (% 80)

DEITUTAKOAK		BERTARATU AK	EZ BERTARATUAK	
			Arrazoia emanda	Arrazoirik eman gabe
Ostatuen ordezkaria	Gorka Mendia	X		
Taxien ordezkaria	José Ignacio López		X	
Aisialdi-kiroleko ordezkaria	Igor Asensio	X		
Interpretazio Zentro, Gidari eta Bidaia Agentzien ordezkaria	Josu Abeytua	X		
Merkataritzako ordezkariak				
Getxo Enpresa	Manu Garay	X		
Romo Bizirik	Mikel Atxaerandio	X		
Algortako Dendak	Oriente Enríquez		X	
Ostalaritzako ordezkariak				
Romo Bizirik	Raúl (Baste)		X	
Getxo Enpresa	Desirée Yeste	X		
Getxoko Udala – Ekonomia Sustapeneko Arloa	Mirene Zabalgogezcoa	X		
	Ane Osoro	X		
	Rubén Justicia	X		
	Juan Jesús Blanco	X		



1.- Ordezkariei ongi etorria ematea eta bileraren helburua aurkeztea.

Mirene Zabalgogezcoak (aurrerantzean M.Z.), Ekonomia Sustapeneko Arloko teknikariak, ongi etorria eman die deialdira bertaratu direnei, eta bileraren helburua gogorarazi du:

- ✓ 2024ko irail eta urriko mahai sektorialetan egindako eskaerak nahiz aurretik daudenak aurkeztea.
- ✓ Proposamen, ideia edo iradokizun berriak.
- ✓ Hurrengo urratsak: Kontrasteko mahai politikoa.

2.- 2024ko irail eta urriko mahai sektorialetan egindako eskaerak nahiz aurretik daudenak aurkeztea eta horien gaineko jarraipena egitea:

Ez da proiektu berririk aurkeztu eta, hortaz, **mahai sektorialetan jasotako hamasei eskaerak adieraziko dira, bai eta horien egoera egiaztatu ere.**

- **Amaituta dauden eskaerak** zehaztuko dira jarraian:

2024ko MAHAI SEKTORIALETATIK ERATORRITAKO EKINTZAK	MAHAIA	EGOERA
Taxien Mahaiaren eta Ostatu Mahaiaren arteko bilera ezartzea, bezeroentzat onuragarria izango den hotelen erreserba-zerbitzua kudeatzeko merkataritza-lankidetzaren adoste aldera.	OSTATUA + TAXIAK	AMAITUTA
Abra GetxoPort informazio-postuak eskaintzen duen informazioa baino argibide gehiago eskatu dituzte.	AISIALDIA	AMAITUTA
2024ko kontrataziorako laguntzen deialdiari buruzko informazioa bidaltzea.	DENAK	AMAITUTA

- Ondoren, **bidaltzeke dauden dokumentuak bidaltzeari** lotutako ekintzak jaso dira.

2024ko MAHAI SEKTORIALETATIK ERATORRITAKO EKINTZAK	MAHAIA	EGOERA
Hauetako buruzko informazioa bidaltzea: 1. "Getxoz gozatzeko planak 2024" ekimenari buruzko emaitzen urteko memoria. 2. 2024ko amaieran, Getxora helduko diren gurutzatzen etorrerei eta 2025eko aurreikuspenei buruzko informazioa. 3. Urteko bigarren seihilekoan, Getxon emandako gau-kopuruari buruzko informazioa.	GIDARIAK	EGITEKE
Lokalaren barruan nahiz kanpoan musika-ekitaldi bat antolatzeko prozedurari buruzko dokumentua bidaltzea.	OSTALARITZA	EGITEKE

- **Aribidean edo egiteke dauden ekintzak** jaso dira ondoren:



2024ko MAHAI SEKTORIALETATIK ERATORRITAKO EKINTZAK	MAHAIA	EGOERA
Pentsioen/apartamentuen bezeroentzako zamalanetarako aparkaleku-aukera baloratzea, edo egonaldi luzeetarako TAO tarifak ezartzea.	OSTATUA	ARIBIDEAN
Getxoko errepideko zirkulazioan hotelen seinaleak hobetzeko aukerak bilatzea.	OSTATUA	ARIBIDEAN
Errepideko zirkulazioan identitate korporatiboko (GETXOKO MARKA KORPORATIBOKO) errotuluak, hiru tamainatakoak, sartzea baloratzea.	OSTATUA	ARIBIDEAN
Getxo Kirolak erakundeari eta Bizkaiko Foru Aldundiari helaraztea Ereaga hondartzan nabigatzeko kanal mugatua jartzeko beharra dagoela.	AISIALDIA	ARIBIDEAN
2025eko GETXOBONO kanpainaren eredian hobekuntzak egitea baloratzea, aurreko egunetan salmentak gelditu ez daitezen.	MERKATARITZA	ARIBIDEAN
Itxaso Zelaiak eta OKELBIZ elkarteak egindako "Haragiaren Azoka Getxon" ekitaldiaren proposamena helaraztea.	MERKATARITZA	ARIBIDEAN
Azpiegituren Sailari seinaleak eta taxien geralekuak berregokitzeko beharra helaraztea berriro.	TAXIAK	ARIBIDEAN
Taxi egokituari buruzko proiektuaren gaineko ikuspegi berria lantzea, beste eredu bat erabiliz.	TAXIAK	ARIBIDEAN
Beste bilera bat egiteko deialdia zabaltzea, gurutzaontziko bidaiariek eskatzen dituzten taxi-zerbitzuari buruz aritzeko.	TAXIAK	ARIBIDEAN
Marketin Plana eta Turismoko Plan Estrategikoa.	AISIALDIA + GIDARIAK	ARIBIDEAN
Ostalaritzako sektorea berraktibatzea: eskaintza hobetzea, ideia berriak, proiektuak, etab.	OSTALARITZA	ARIBIDEAN



1. Pentsioen/apartamentuen bezeroentzako zamalanetarako aparkaleku-aukera baloratzea, edo egonaldi luzeetarako TAO tarifak ezartzea.

M.Z.-k esan du Bidezaintza Sailari helarazi zaiola eskaera eta adierazi du ordainpeko aparkalekuari (TAO) buruzko ordenantza aldatu egingo dela eta honako hauek aztertzeko balorazio teknikoa egiteko zain daudela: plaza-kopurua, sistemaren barruko gorabehera, *check-in* plazak, ostatuak eta tokiko saltokietarako baldintza bereziak.

2. Getxoko errepideko zirkulazioan hotelen seinaleak hobetzeko aukerak bilatzea.

M.Z.-k esan du apirileko kontrasteko mahaian erabaki zela errepideko zirkulazioan turistentzako ostatuak izan beharreko seinaleak jorratzea.

Bestalde, Juan Jesús Blancok, Ekonomia Sustapeneko Arloko arduradunak, esan du gobernu-taldea proiektua jorratzen dabilela jada, 2025eko udal-aurrekontuetarako kontuan hartu dadin.

3. Errepideko zirkulazioan identitate korporatiboko (GETXOKO MARKA KORPORATIBOKO) errotuluak, hiru tamainatakoak, sartzeari baloratzea.

M.Z.-k adierazi du Hirigintza eta Bidezaintza sailei jakinarazi zaiela jada baloratu behar dela GETXO eta LEIOA arteko muga zehazten duen konponbidea (hiru dimentsioko errotulua edo arkuak), turistek argi izan dezaten non hasten den GETXO udalerrria, Avanzadatik igaro ondoren eta biribilgunera heldu baino lehen.

Horrez gain, Ane Osorok gehitu du ez daudela argi sarrerako seinaleak, adierazten dutelako eskuinetara GETXO dagoela eta ezkerretara, berriz, AREETA eta Romo; alabaina, horren ordez adierazi beharko litzateke ALGORTA eta ANDRA MARI daudela eskuinetara.

4. Getxo Kirolak erakundeari eta Bizkaiko Foru Aldundiari helaraztea Ereaga hondartzan nabigatzeko kanal mugatua jartzeko beharra dagoela.

Ane Osorok esan du FANGALOKA dela Ereaga hondartzako txiringito-adjudikazioduna eta kirol-jarduera eskaintzera behartuta dagoela; hala, Aisialdi Mahaian eskatu zuen kayak eta surflariak uretara sartzeko gune bat mugatzeko.

Ekonomia Sustapeneko Arloko Ane Osorok esan du Getxo Kirolakekin (Ereaga hondartzako dinamizazioa kudeatzeko erakunde arduradunarekin) adostu dutela FANGALOKA arduratuko dela egunero ur-bazterrean bi banderatxo eta buia-ilara bat jartzeaz, nabigatzeko errei bat sortzeko.

FANGALOKAK Ekonomia Sustapeneko Arloari adierazi dio urtarrilean hasiko direla aipatutako ekintza izapidetzen, 2025eko udako denboraldian gauzatu ahal izateko.



5. 2025eko GETXOBONO kanpainaren ereduari hobekuntzak egitea baloratzea, aurreko egunetan salmentak gelditu ez daitezen.

M.Z.-k esan du 2025eko GETXOBONO kanpainarako beste aukera batzuk aztertzen ari direla, gehiago iraun dezan eta udalerrian erostea bultzatu dezan, hau da, eragin ekonomiko handiagoa izan dezan udalerrian (gehitu du Juan Jesús Blancok).

6. Itxaso Zelaiak eta OKELBIZ elkarteak egindako "Haragiaren Azoka Getxon" ekitaldiaren proposamena helaraztea.

M.Z.-k esan du Itxaso Zelaiak, Merkataritza Mahaiko ordezkariak, proposatu zuela Haragiaren Azoka ekitaldia antolatzea 2025ean eta teknikariek proposamena baloratzeko zain dagoela.

7. Azpiegituren Sailari seinaleak eta taxien bi geralekuren kokapena berregokitzeko beharra helaraztea berriro.

M.Z.-k adierazi du bi geldialdi daudela Areetan: PANDA jatetxetik gertu dago bat eta Bizkaia Zubiko plazatik gertu bestea.

- *Zalama geralekua (PANDA jatetxearen ondoan):* Hirigintza berrantolatzekeo prozesuan dago eta garraio publikoaren, herritarren, taxien nahiz zaborren beharrak batu behar dira. Sei hilabeteko epean hasiko dira obrak. Bidezaintza Sailean baloratuko dute eskaera, plangintza egiteko.

- *Tomas Olabarri eta Evaristo Txurruka kaien elkargunean (Bizkaia Zubiaren aurrean) dagoen geralekua:* Amaieran dagoen seinale bat mugitzea: Bidezaintzako teknikariari helarazi zaio mugitzeko eskaera.

8. Taxi egokituari buruzko proiektuaren gaineko ikuspegi berria lantzea, beste eredu bat erabiliz.

M.Z.-k esan du taxi irisgarriari buruz egungo legeriak ezartzen duenaren azpitik (gutxienez taxi egokitu bat) dagoela Getxo eta azaldu du taxi-gidariak arazoak izan dituztela haien zerbitzua eskaintzeko, bereziki adineko bezeroei dagokienez. Juan Jesús Blancok esan du bere eskaeraren ondoren Ekonomia Sustapeneko Arloko teknikariek taxi egokitu berri bat erosi edo berregokitzeko deialdi bat egin zutela. Gehitu du deialdia indarrean egongo dela abenduaren 31ra arte.

M.Z.-k esan du orain arte ez dutela inolako eskaerarik jaso baina epea amaitutakoan Idazkaritzara helaraziko dutela gaia, zein beste aukera dagoen aztertzeko.

Oro har adierazi dute taxi egokituertarako lizentzia bakar batekin ez litzatekeela guztiz konponduko irisgarritasunari dagokionez gaur egun Getxon dagoen arazoa.



9. Beste bilera bat egiteko deialdia zabaltzea, gurutzaontziko bidaiariak eskatzen dituzten taxi-zerbitzuari buruz aritzeko.

Arloko teknikariarekin bilera bat egiteko eskatu zen, gurutzaontziko bidaiariak taxi-zerbitzuarekin duten arazoa konpontzeko. Eskaera erantzuteke dago.

10. Marketin Plana eta Turismoko Plan Estrategikoa.

Juan Jesús Blancok azaldu du enpresa adjudikaziodunek bi planei buruz inkesta bana egingo dutela, bat azaroaren 5ean eta bestea azaroaren 12an; inkesta horiek askotariko sektoretara bidaliko dituzte (tokiko eragile eta elkarteen bidez) eta eskatuko zaie bete dezaten eta informazioa eman dezaten.

M.Z.-k argitu du plan estrategiko horretan kontuan hartuko direla turismoari eragiten dizkieten sektore guztiak: kirol-aisialdia, merkataritza, gidariak, ostalaritza, etab. Halaber, martxoko mahai sektorialetarako azterlanari buruzko ondorio aurreratuak aurkeztuko dituzte.

11. Ostalaritzako sektorea berraktibatzea: eskaintza hobetzea, ideia berriak, proiektuak, etab.

M.Z.-k jakinarazi duenez, Getxoko ostalaritzako sektoreak eskaintza gastronomikoaren kantitateari, kalitateari eta aniztasunari dagokienez agertutako kezka dela-eta ezohiko deialdi bat egin zen ordezkariekin (BASQUE CULINARY CENTERREN lanean diharduen turismo-aholkulari batekin eta LEIOAKO OSTALARITZA ESKOLAKO ordezkari batekin, biak ala biak getxoztarrak) eta zenbait eragilerekin. Ondorioztatu du bilera horretatik abiatuta erdigunean jarriko direla ateratako ondorioak.

3.- Proposamen, ideia edo iradokizun berriak:

Kirol Aisialdiko Mahaiaren proposamenak

3. 1.- Álvaro (INGURU) mahaiaren sartzea aztertzea.

M.Z.-k esan du mahai eta kontsulta-foroetarako sarbidea mugatuta dagoela. Azpisektoreari zuzenean lotutako jardueraren bat egiten duten enpresak daude soilik.

Azpisektore bakoitzak dagokion mahaiaren bidez helarazi behar du proiektu-proposamena. Administrazio publikoak hura gauzatuko baldin badu, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeari jarraituko zaio. Adibidez, aisialdi-sektorerako sustapen-kanpaina bati buruzko eskaera bada, aplikazio jakin baten bidez egingo bada eta unean uneko merkataritza-ekintza bada, aurrekontuan diruz hornitu eta kontratatu beharko da.

Bestalde, Ekonomia Sustapeneko Arloak adierazi du modu horretan turismo-alorrari lotutako askotariko eragile ikustarazi ahalko lirartekeela: bidaia-agentziak, gidariak eta kirol-aisialdia.



3.2.- *Mahaiko aurrekontua honako hauetarako erabiltzea: ikus-entzunezko eduki profesionalak sortzeko, gure jarduerak udalerriko sareetan sustatzeko eta eduki horiek gure sareetan erabiltzeko, betiere Getxo udalerria aipatuta.*

Turismo Arloak dagoeneko bere sareetan sustatzen ditu Getxon diharduten turismo-enpresek eskaintzen dituzten zerbitzuak.

Era berean, Juan Jesús Blancok, Ekonomia Sustapeneko Arloko arduradunak, jakinarazi du zerbitzuen sektorean (saltokiak kanpo utzita) berrikuntzak egiteko dirulaguntzen ildo bat dagoela (1. ildo) eta sustapen-bideo horiek sartu daitezkeela ildo horretan, betiere baldin eta Getxoko Udalari ez badagokio ikus-entzunezko eduki horiek kudeatzea eta elkarte edo kanpoko publizitate-agentzia bat arduratuko bada horretaz.

3.3.- *Parte hartzen dugun azoketan aurkezteko materiala prestatzea.*

Ane Osorok esan du udala FITUR azokara joaten dela eta Getxoz gozatzeko planen katalogoa aurkezten dela bertan, sektorearen adierazgarri gisa, beti BasqueTour eta Bizkaiko Foru Aldundiari esker.

3.4.- *Mahaien arteko sinergiak sortzea; horretarako, mahai bakarra eratuko da, ideiak partekatzeko eta udalerriko turismo-eskaintza bateratua bultzatzeko.*

M.Z.-k esan du ideiak nahiz proposamenak lantzeko eta helburu hori bultzatzeko tokia dela foroa.

Kirol Aisialdi Mahaiaren proposamenak

Bertaratutako guztien artean erabaki da Kirol Aisialdiko Mahaiko ordezkari Igor Asensiok elektronikoki helaraztea ekarpen gehiago topaketa hau egin eta gero, eta aktan sartzea.

M.Z.-k esan du dagozkien teknikariei helaraziko zaiela jaialdi guztiak (*Itsas Fest, etab.*) jaialdi bakar batean batzeko aukera.

Jose Rica Itsasoko eta Irristaketako arduradunak erantzun teknikoa eman du:

3.5.- *Jaialdi bakarra sustatu eta dinamizatzea, erakargarriagoa egiteko eta luzaroan iraun dezan.*

Jose Rica, hemendik aurrera JR, JR-k esan du Ekonomia Sustapeneko Arloak itsasoko eta irristaketako arloa sustatzen duela jada, Getxo Itsas Hub estrategiaren bidez.

Sektore horretako ekintzailtza eta enpresak sustatzeko ekintzailtza-zentroa dago: Getxo Itsas Hub. Ildo beretik, itsasoko eta irristaketako arloan diharduten enpresak ikusarazten dira eta horien arteko topaketa profesionalak sustatzen dira.

Sektoreko enpresek eta eragileek udalari proposatzen diote sustatzen eta babesten ditugun ekintzak egiteko. Une honetan, honako hauek finantzatzen ditugu: Sailin Pro (nautika-arloko



Getxo
bizi ezazu

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

topaketa profesionala), Getxo Itsas Fest (Getxo Itsas Hub-eko ekosisteman dauden enpresen zerbitzuak ikusarazteko jaialdia) eta LKSurf Film Festival (surfari lotutako topaketa profesionalen eta ikus-entzunezkoen jaialdia). Horrez gain, Sopela Surf Business Meeting-en ere hartzen dugu parte, sektoreko profesionalekin *networkinga* egiteko. Azpisektore jakin bat (nautika, ikus-entzunezkoak, surfa, etab.) eta topaketetarako egutegi berezia duten ekimen pribatuak dira, zeinak udalak interes estrategikoagatik sustatzen baititu.

Interpretazio Zentro, Gidari eta Bidaia Agentzien Mahaiaren proposamenak

Josu Abeytua mahaiko ordezkariak azaldu du Kirol Porturako plangintza berria jakinarazteko kudeaketa ez dela behar bezala egin eta azalpenak eskatu dizkio kudeatzaile berriari, gune horretan egin nahi den “merkataritza-gune” berria bideragarria ote den adierazteko. Horrez gain, Josuk adierazi du Getxoko Udala arduratu beharko litzatekeela horri buruzko informazioa emateaz.

Erabaki da informazio-bilera bat egitea GENTALIArekin (Kirol Portuko plangintza estrategiko berria diseinatu duen aholkulariarekin), gune horretako etorkizuna argitu dezan.



ERANSKINA

Ostatu Mahaiaren proposamenak

Bi bertaratuek erabaki dute Ostatu Mahaiko ordezkariak, Gorka Mendiak, bilera honen ondoren zenbait ekarpen bidaltzea elektronikoki eta aktan jasotzea ekarpen horiek.

Hauexek dira teknikarien ekarpenekin aurkeztu diren eskaerak:

1.- Taxien Mahaiaren eta Ostatu Mahaiaren arteko bilera ezartzea, bezeroentzat onuragarria izango den hotelen erreserba-zerbitzua kudeatzeko merkataritza-lankidetzara adoste aldera.

Taxi-gidarien mahai sektorialeko ordezkariekin bilera bat egitea erabaki dute, aurretik abisatzeko protokolo bat ezartzen saiatze aldera, eskaria nabarmenki handitzea aurreikusten den datan.

2.- Neguko TAOko ordutegia adieraztea: Igeretxe hoteleko ordezkariak adierazi du neguan bisitari ugari joaten direla hotelera TAOrik ote dagoen galdetzeko eta esaten zaiela neguan ez dela TAO ordaindu behar.

Eskatu du bisitariak ikusi dezaketen ikur edo oharra jartzeko, TAOren neguko ordutegia argi eta garbi adierazita. M.Z.-k erantzun du TAOri helaraziko diotela eskaera.

3.- Embarcadero hoteleko ordezkariak eskatu zuen bidegorria seinaleztatzeari buruz hainbatetan egindako eskaerari erantzuteko; zehazki, hotelaren irteeran bidegorria seinaleztatzea nahi dute, haien terrazatik irtetean talkarik egon ez dadin, terrazak itsas pasealekuko bidegorrira ematen baitu sarbidea.

Eskatu du bidegorrian txirrindulariek ikusi dezaketen ikur edo oharren bat jartzeko, zimurduraren bat eta kolore deigarria duena, oztoporik gabe egon dadin bezeroen sarrera nahiz irteera eta talkarik gertatu ez dadin. M.Z.-k erantzun du Bidezaintza Sailari helaraziko diotela eskaera.

4.- Apartamentos KAlk adierazi du Getxoko Udalak izapidetzen dituen esperientziak izan nahi dituela bere establezimenduan, neguan bereziki, Turismo Bulegoa nahiko urrun baitago haien bezeroengandik.

Proposamena jaso ondoren, Turismoko teknikariak argitu du ez dela "Getxoz gozatzeko planak 2024" katalogoa eskatu, GETXHOTEL jardueren tiketak baizik; hortaz, jarduera horiez gozatzeko, bezeroak nahitaez joan behar dira turismo-bulegoren batera —bai Bizkaia Zubiko plazakora, bai Ereaga hondartzakora— eta establezimenduak bezeroei aurretik

emandako inprimaki zigilatua eman. Hauxe da inprimakiaren esteka:
<https://www.getxo.eus/DocsPublic/turismo/bono-getxHotel.pdf>

Bestela, erreserbaren berrespena (mugikorrean edo inprimatuta) edo ostatuaren ongietorri-txartela aurkeztu daiteke turismo-bulegoan. Data jakin batzuetan egiten dira jarduerak, Bizkaia Zubikoa izan ezik; hori dela-eta, horren arabera eskainiko dira jarduerak eta egonaldiaren data adieraziko da tiketan.

Adierazi da beste modu batera jardutea baloratu behar dela, turismo-bulegora edo turismo-informazioko gunera joan behar ez izateko, betiere ezarritako baldintzak betez.

4.- Hurrengo urratsak: Kontrasteko mahai politikoa

Mahai sektorialetako ordezkariak jakinarazi zaie aurreikusita dagoela **kontrasteko mahai politikoaren hurrengo bilera abenduaren 11n, 14:00etan**, egitea.

Sortu daitezkeen beste zalantzatarako, eskatu da enpresen kontsulta-foroaren helbidera idazteko: foroconsultivodeempresas@getxo.eus.

ENPRESEN KONTSULTA FOROAREN ERABAKIAK (2024-10-30):

ERABAKIAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1.- Aktaren zirriborroa bidaltzea eta lortutako akordioak aurkeztea.	Udal-teknikariak	Bilera-egunetik aurrera
2.- Kontrasteko mahai politikoa deitzea	Udal-teknikariak	Bilera-egunetik aurrera
3.- Bilera bat deitzea GENTALIArekin, Kirol Portuko aholkularitza-enpresarekin, Ekonomia Sustapeneko Arloak eta mahaietako ordezkariak aurkezpen bat egin dezaten batera, komunikabideetan aurkeztutako proiektuari buruz.	Udal-teknikariak	Bilera-egunetik aurrera
4.- Ekonomia Sustapeneko Arloak baloratzea 1.ildoan sartzea ikus-entzunezkoak sustatzeko ekintzak diruz laguntzeko aukera.	Udal-teknikariak	Bilera-egunetik aurrera
5.- Itsaso eta irristaketako nahiz Turismoko teknikariak eskainiko zaie Kirol Portuko aisialdi-ekitaldi guztiak bakar batean metatzeko aukera.	Udal-teknikariak	Bilera-egunetik aurrera
6.- Beste bilera bat egiteko deialdia zabaltzea, gurutzatutako bidaiariak eskatzen dituzten taxi-zerbitzuari buruz aritzeko.	Udal-teknikariak	Bilera-egunetik aurrera
7.- Ekonomia Sustapeneko Arloak baloratzea Itxaso Zelaiak eta OKELBIZ elkarteak egindako "Haragiaren Azoka Getxon" ekitaldiaren	Udal-teknikariak	Bilera-egunetik aurrera



Getxo
bizi ezazu

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

proposamena.		
8.- Jarduteko beste modu bat baloratzea ostatuetan GETXHOTEL tiketak eman ahal izateko, betiere baldintzak betez, bisitariak ez dezaten turismo-bulegora edo turismo-informazioko gunera joan behar.	Udal-teknikariak	Bilera-egunetik aurrera
9.- Marketin Planari eta Turismoko Plan Estrategikoari buruzko bi inkesta bidaltzea, betetzeko.	Enpresa adjudikaziodunak	Azaroaren 5ean eta 12an
10.- Lokalaren barruan nahiz kanpoan musika-ekitaldi bat antolatzeko prozedurari buruzko dokumentua bidaltzea.	Udal-teknikariak	Bilera-egunetik aurrera
11.- Hauei buruzko informazioa bidaltzea: 1. "Getxoz gozatzeko planak 2024" ekimenari buruzko emaitzen urteko memoria. 2. 2024ko amaieran Getxora helduko diren gurutzantzien etorrerei eta 2025eko aurreikuspenei buruzko informazioa. 3. Urteko bigarren seihilekoan, Getxon emandako gau-kopuruari buruzko informazioa.	Udal-teknikariak	Bilera-egunetik aurrera